

KLIMATIZAZIO BABESEKO ZERBITZUAREN BALDINTZA EKONOMIKOAK BALDINTZA PARTIKULARRAK

Zerbitzua Hornidura Helbidea atalean ageri den bezeroaren etxebizitzara konponketak doan egiteko teknikari kualifikatu bat bidaltzean datza, matxura hauek konpon ditzan: erabilera partikularreko etxebizitzetan instalatuta dauden zuzeneko hedapen bidezko klimatizazio ekipamendu indibidualetakoak, horien hoztezikuitu eta hustubideetakoak, eta ekipamenduetarako konexio elektrikoetakoak. Barne hartzen ditu split edo multisplit motako eta hodi bidezko aire girotuko instalazioak eta/edo bero-ponpak. Kausa justifikatu bat dela-eta klimatizazio-ekipamendua ezin bada konpondu, esate baterako, ordezko piezak falta direlako, bezeroak eskubidea izango du egin ez den konponketaren ordezkapenordainketa jasotzeko, jarraian zehazten diren zenbatekoen arabera, eta zenbateko horretatik kendu egingo da urteko kontratuaren epealdi berean egin diren konponketen kostua.

10 urte baino gehiago dituzten klimatizazio-ekipamenduetan ez da ordezkapen-ordainketa aplikatuko.

Kostuaren Urteko Muga: kostuaren Urteko Muga 300€-koa da, aplikatu daitezkeen zerga guztiak barne. 10 urte baino gehiago dituzten ekipamenduen kasuan, konponketan sartuko dira joan-etorria eta lanaren 3 ordu. Bezeroak ordaindu beharko ditu piezak.

Ordezkapen-ordainketa, egin ezin izan den konponketagatik: kausa justifikatu bat dela-eta matxura ezin bada konpondu, ordezkapenordainketa ekipamenduen antzinasunaren arabera egingo da, jarraian adierazten den moduan:

- 300€ urteko, 5 urtetik beherako antzinasuna duten ekipamenduetarako.
- 250€ urteko, 5 urte edo gehiagoko eta 7 urte baino gutxiagoko antzinasuna duten ekipamenduetarako.
- 200€ urteko, 7 urte edo gehiagoko eta 9 urte baino gutxiagoko antzinasuna duten ekipamenduetarako.
- 150€ urteko, 9 urte edo gehiagoko eta 11 urte baino gutxiagoko antzinasuna duten ekipamenduetarako.
- 0€ urteko, 11 urtetik gorako antzinasuna duten ekipamenduetarako.

Prezioa: Prezioa, Kostuaren Urteko Muga eta Ordezkapen Ordainketa kontratua indarrean dagoen urte bakoitzeko urtarilaren 1ean eguneratuko dira, KPIaren aldakuntzaren arabera. Erreferentziako KPI hori Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako Kontsumoko Prezioen Indize Orokorraren aldaketa ezarri aurreko urtearen azarotik azarora bitarteko epeari dagokion balio erreal metatua izango da.

Zerbitzuaren iraupena: zerbitzu honen iraupena bezeroaren etxebizitzaren energia, argindar edo gas naturalaren hornikuntza kontratuan Iberdrolarekin adostutakoa izango da.

BALDINTZA BEREZIAK

1. XEDEA

Baldintza Berezi hauen xedea IBERDROLA CLIENTES SAU enpresak (aurrerantzean, IBERDROLA) Baldintza Partikularretan aipatzen den KLIMATIZAZIOAREN BABESA zerbitzu gehigarria ematea da. Jarraian, zerbitzu honen irismena zehaztuko da:

1.1 Klimatizazioaren Babesa

Teknikari batek etxean eta kostu gehigarririk gabe konponduko ditu Baldintza Partikularretan adierazten diren klimatizazio-ekipamenduko matxurak eta instalazioa, Kontratuan ageri den Hornidura Helbideari dagokion bizilekuan, baldin eta ez bada gairatzen Baldintza Partikularretan zehaztutako Kostuaren Urteko Muga.

1.2 Zerbitzuaren eskakizunak

1.2.1 Hornikuntza-kontratuari lotua

Zerbitzu honek energia elektriko hornitzeko kontratu bati lotuta egin beharko du, eta 15 kW edo gutxiagoko potentzia edukiko beharko da kontratatuta. Edo, bestela, behe-presioko gas naturala hornitzeko kontratu bati egin beharko du lotuta, eta horrek 3.1 edo 3.2 tarifa izan beharko du. Bezeroak hornikuntza-punturako kontratatutako potentzia elektriko areagotzen badu (15 kW-etik gora) edo 3.3 edo gehiagoko gas-tarifa batera igarotzen bada, baja emango zaio zerbitzu honetan.

1.2.2 Klimatizazio-ekipamenduen antzinasuna

Zerbitzuaren sartzen diren gailuek 10 urte izan behar dituzte gehienez ere. Hori egiaztatzeko, erosketa-eguna hartuko da kontuan, eta bezeroak erosketaren tiktetaren edo fakturaren bitartez justifikatu beharko du. Klimatizazio-ekipamenduak 10 urte baino gehiago baditu, Iberdrolak ez du konponketa bere gain hartuko, baina bezeroak interesa badu, hirugarren baten bitartez aurkeztu ahal izango du konponketaren aurrekontua, eta Iberdrolak ez du aurrekontu edo konponketa horri dagokion erantzukizunik izango.

1.3 Irismena

1.3.1 10 urte baino gutxiago dituzten ekipamenduetan:

Estaladura-zerbitzuaren sartzen dira matxurak konpontzeko egin behar diren joan-etorrien, eskularen, piezen eta zergen gastuak.Kostu horien guztien baturari Konponketa Kostua esango zaio hemendik aurrera.Teknikariak, bisita egin ondoren, Konponketa Kostuaren xehetasunak emango dizkio bezeroari. Ez da konponketetarako esku-hartzeen urteko mugarik egongo. Kostuaren Urteko Muga bat ezarri da, Baldintza Partikularretan jasotakoaren arabera. Bisitaren ondoren bezeroari aurkeztzen zaizkion Konponketa Kostuak Kostuaren Urteko Muga gainditzen badute, 1.6 klausulan ezartzen den moduan jardungo da.

1.3.2 10 urte edo gehiago dituzten ekipamenduetan:

Zerbitzuaren sartzen dira joan-etorriak eta mantentze-lanaren lehen 3 orduak. Bezeroak ordaindu beharko du piezen kostua. Bezeroak ordaindu beharko ditu piezen kostua eta/edo 3 ordutik aurrerako mantentze-lanak. Fakturatu aurretik, bezeroari aurrekontua aurkeztuko zaio eta hark onartu egin beharko du.

1.4 Bermea

Konponketa-lanak sei hilabeteko bermea izango dute, konponketa amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

1.5 Salbuespenak

Zerbitzutik kanpo daude honako hauek:

- 10 urtetik gorako antzinasuna duten klimatizazio-ekipamenduak.
- Merkataritza- eta industria-instalazioetako zerbitzuak eta, oro har, etxerako soilik erabiltzen ez diren instalazio edo ekipamenduak.
- Etebizitza bati baino gehiagori zerbitzu emanen dioten klimatizazio-instalazio zentralizatuak, ekipamendu eramangarriak, finkoak ez diren edo zerbitzuarekin lotuta dagoen energiahornikuntzako puntuan kokatuta ez dauden instalazioak, eta irismenean berariaz jasotako teknologiez bestelakoak erabiltzen dituzten klimatizazio-ekipamenduak. • Berraldian dauden instalazio edo ekipamenduak.
- Teknikoak ikusten ez dituen edota eskueran ez dituen ekipoen edo instalazioen konponketa. CCEP y CCEE PC-2018-01-EUS
- Esmalteak, pintaketak, nikelizatutakoak, kromoztatuta eta aparatuen barne-funtzionamenduari eragiten ez dioten piezak eta osagarri estetikoak edo bestelako piezak.

- Korrosioa edo oxidazioa, hala aparatuen erabilera normalak edo higadurak nola proposak ez diren ingurumen- edo klima-egoerek, hondarrak, hautsak, zehetasunak edo gazitasunak eragindakoa.
- Ekipamenduen edo instalazioaren ezohiko erabilera, axolagabeak edo desegokiak eragindako matxurak, nahigabeako kalteak, nahiz kanpoko jatorria duen bestelako edozein ekintzak sorturikoak.
- Aparatua mantentzeko edo kontserbatzeko operazioak, besteak beste, koipeztaketa, doikuntzak edo garbiketak edo aldiakako berrikuspenak.
- Fabrikatzaileak kontsumigarritzat hartutako pieza oro.
- Fabrikatzailearen ordezko piezak falta direlako ekipamenduen erabilgarritasun-galeragatik egindako erreklamazioak.
- Zuzenean nahiz zeharka suteen edo ohiz kanpoko fenomenoek zein hondamendien ondorio diren matxurak.
- Aparatua oker edo araei jarraitu gabe instalatzeagatik, aldaketa desegokiengatik edo jatorrizkoak ez diren aldaketa-piezak erabiltzeagatik sortutako matxurak.
- Ekipamenduen ondorio-kalteak, baldin eta ez baditu funtzionamenduen barne-matxura batek eragin, edo estalitako instalazioari berezkoak ez zaizkion elementuek eragindako kalteak, eta, oro har, edonolako erantzukizun zibila.

1.6 Muga gainditzen dituzten kostuen fakturazioa

Klimatizazio-ekipamendua konpontzeko kostuak eta hura instalatzekoak, urtebetean egindako konponketen kostuetara gehituta, osorik edo zati batean gainditzen badute Kostuaren Urteko Muga, bezeroak bere kontura ordaindu beharko ditu barne hartzen ez diren kostu horien zenbatekoa. Bezeroari aurrekontua aurkeztu ondoren eta bezeroak hura onartu ondoren fakturatuko dira.

1.7 Ordezkapen-ordainketa egin ezin izan den konponketagatik

Kausa justifikatu bat dela-eta matxura ezin izan bada konpondu (esate baterako, ordezko piezak falta direlako), bezeroak eskubidea izango du egin ezin izan den konponketa horren Ordezkapenordainketa jasotzeko. Ordainketa horren zenbatekoa klimatizazioekipamenduen antzinasunaren arabera izango da, Baldintza Partikularretan adierazten den moduan.Ordezkapen-ordainketaren zenbatekoari kendu egingo zaizkio urteko epealdi horretan eginiko konponketen kostua, halakorik egin bada.Ordezkapen-ordainketa behin baino ezingo da egin kontratua indarrean dagoen urteko epealdian. Horretarako, Iberdrolak aparatuari buruzko datuak (marka, modeloa, serie-zk.) jasoko ditu arreta ematen duenean.

2. ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZAK

2.1 Kontratu aktibatzea

Hogeita hamar (30) egun naturaleko gabealdia ezarri da, kontratua indarrean sartzen den egunetik zenbatzen hasita (kontratu honen 3.1 klausulan dator zehaztuta). Aldi horretan ezin izango da zerbitzua erabili; beraz, ez zaie erantzunik emango bezeroak egiten dituen konponketa-eskaerei.

2.2 Zerbitzua eskatzea

Bezeroak Zerbitzua eskatu ahal izango du:

- Iberdrolaren Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren telefono-zenbakira deituz.
- Iberdrolaren Aurrez Aurreko Arreta Puntu batera joanez.

2.3 Matxura artatzea

Matxura bi (2) laneguneko gehieneko epean artatuko da, larunbatak, igandeak eta jaiegunak salbetsita, jakinarazpena egiten denetik, halabeharrez ez bada. Matxuraren arretarako epea betetzat joko da teknikaria ezarritako epean bezeroarekin harremanetan jarri bada eta gutxienez hitzordu bat eskaini badio arestian aipatutako gehieneko epearen barruan. Bezeroak bisita beste une batean egiteko eskatzen badu, epea ez da urratutzat joko.

2.4 Zerbitzua emateko baldintzak

IBERDROLAK hurrengo baldintzetan jasotakoaren arabera emango du KLIMATIZAZIOAREN BABESA zerbitzua:

- Bezeroak eskatutako jarduketa estalita egongo ez balitz (aipatu salbuespenetako bat delako), egindako gastu oro fakturatuko zaio. Horretarako, dagokion aurrekontua aurkeztuko zaio, bezeroak onar dezan.Iberdrola kontratu honen xede diren lanak ongi egitearen erantzule besterik ez da izango.
- Iberdrola kontratu honen xede diren lanak ongi egitearen erantzule besterik ez da izango. Berezik, ez du erantzukizunik edukiko kasu hauetan:
 - Behar bezala ez erabiltzeagatik edo ongi ez mantentzeagatik pertsonengan eragindako kalteak edo kalte materialak.
 - Edozein gailuri edo haren funtzionamenduari eragindako kalteak, ez badira gailuak berak eragindakoak.
 - Estaldurapeko gailuek hirugarrenei eragindako kalteak.
 - Ezusteko edota ezinbesteko kasuak.
- Iberdrola ez da greba, matxinada, muturreko fenomeno meteorologiko eta halako ezinbesteko kasuetan gerta litezkeen atzerapenen edo arazoek erantzule izango.

3. ZERBITZUAREN INDARRALDIAREN HASIERA, IRAUPENA, BERRITZEA ETA BAJA

3.1 Indarrean jartzea

Zerbitzu hau lotetsita dagoen elektrizitate edo gas natural horniduraren kontratua kontratatu berria bada, Kontratu hau Iberdrolarekin kontratatutako elektrizitatearen edo gas naturalaren hornidura benetan hasten den egunean jarriko da indarrean, dagokion gabealdia albo batera utzi gabe. Zerbitzu hau bezeroak Iberdrolarekin lehendik zuen hornikuntza elektriko edo gas naturaleko kontratu bati gehitzen bazaio, kontratu hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, dagokion gabealdia albo batera utzi gabe.

3.2 Iraupena

Zerbitzu honen iraupena bezeroaren etxebizitzaren argindarraren edo gas naturalaren hornikuntza-kontratuan Iberdrolarekin adostutakoa izango da. 3.3 Berritzea Zerbitzua urtero berrituko da, lotetsita dagoen elektrizitatearen edo gas naturalaren hornikuntza-kontratua berritzearekin batera, alderdietakoren batek aurkakorik jakinarazi ezean kontratua amaitu baino hamabost egun lehenago gutxienez.

3.3 Baza

Alderdietako edozeinek zerbitzuaren baja eman dezake edozein unetan, inolako zigorrik jaso gabe. Dena den, zerbitzua eskaintzaren bat duen hornikuntza elektriko bati lotuta badago, hornikuntza elektriko horren Baldintza Partikular eta Berezietan ezarritakoa aplikatuko da.

Era berean, bezeroak baja ematen badu argindarra edo gas naturala hornitzeko Iberdrolarekin duen kontratuan, baja emango zaio zerbitzu honetan. Baja eskatzaileak behar bezala frogatuta jakinarazten duen egunean hasiko da.Argindarra edo gas naturala hornitzeko kontratuaren merkaturatzailea aldatuz gero, banatzaileak Iberdrolari merkaturatzailea aldatu dela jakinarazi behar du eta jakinarazpena egiten den egun horretan gauzatuko da baja.